

ANGELUKO IKASLEAK.

1997-98ko IKASURTEA-  
OSOGUNEKO ERAKASKERA-

Piarres

ARTHO XURITZEN 5

Orai duela aspaldi, Hergaraiko gain horietan, omen zen beraz ithurri bat hauta, *Ur-onttoa* deitzen zutena. Ur-onttoari hurbil, eta kasik Ur-onttoan bizi ohi zen emazteki bat alfserra... bainan alfserra! Zotza, hots! Deus fitsik ez omen zuen egiten sekulan, Ur-onttotik hurrup eta klik bizi izan balitz bezala.

Hura alfer-zotz hola ikustearaz okaztatu zen azkenean Jainko maitea, eta andre higuina zerbeitetan bermarazi<sup>14</sup> beharrez, egin zituen beraz... lehenbiziko bi *kukusoak*. Eta ixtanteko sortu ziren bertze sekulakoak. Handik harat, lan izan zuen emaztekiak, bedeñ *kukuso miatzen*. Zorigaitzez, ez zituen oro hil – hain zen alfserra! – eta Ur-onttoaren aldean iragan gizon eta emazteki guzien gainera jauzi egin zuten kukusock, eta orai, badira bazter guzietan ilumina<sup>15</sup>.

Gaxuxa eta haren lagunak hirriz ari ziren maiteki; batere hasarreto gabe. Iduri ere zitzaioten – zer diren hatik ametsak! – Ur-onttoko kukusoak, artho-xurikinetarik, purru purru jin behar zitzaizkotela guzieri gainera.

\* \* \*

Lana bururautua zuten bizkitartean. Bulta hartan jada, etxekandrea itzalia zen bere Marierekin batean. Eta orai, artho-xuritzaleak oro sukaldean ari ziren, deskantsorik maiteenean, ogi eta gasna ahamen baten jaten. Gaxuxak ez zuen xinkorkeriarik nahi Oihanadean, guziz langileentzat. Eta sagar-arno hoberenetik ari ziren oro, gaztena gozo gozo batzu zintzurrari behera igorri beharrez. Goseiak ere ziren, hotzak eta lanak hortzak xorroxturik. Esne xorta bat martu zuten oraino lorietan, eta gero xutitu guziak, zoin beren etxeetarat joan beharrez.

Athe handia zabaldu zeneko, haize mehe bat firurikan<sup>16</sup> sartu zen Oihanadean, etxekandreenen baimenikan batere gabe, eta, gau on halako hotz-ikare batean erranik, joan ziren oro kanporat.

34 UKAN. Eventuel 3<sup>e</sup> forme - Éventualité passée.Objet singulier

Nik Jakin banu = si je l'avais su

Hik Utzi bahu = si tu l'avais laissé

Zuk Ikuoi begiun:

Harek Hetsi bahu :

Guk Ukan begiun :

Zuek Ideki begiunte:

Heiek Eman balute : etc

Objet pluriel

banitu = si je l'avais tous

bahitu =

begiunte = si nous les avions tous

balitu =

begiuntze = si nous les avions tous

balituzte =

balituzte = si les avaient donné

SEIGARREN ERAKASPENA.ELHEKETA ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Ur-onttoko emazte hori nolakoa zen?
2. Nola sortu ziren lehenbiziko *kukusoak*?
3. Artho xuritzaleek zer egin zuten arthoa xureta-ta?

(III) ADITZ IKASKUNTZA

31. *Izan balitz*      32. *Zitzaioten*  
 33. *Zitzaizkotela*      34. *Ikusibane*

31. IZAN. Eventuels

<u>1<sup>e</sup> forme</u>	<u>2<sup>e</sup> forme</u>	<u>3<sup>e</sup> forme</u>
<u>si j'étais</u>	<u>si j'étais</u>	<u>si j'avais été</u>
Ni izaiten banitz	izan banindadi	izan banitz
Hi " bahintz	" bahindadi	izan bahintz
Zu " bargine	" barginte	" bargine
Hura " balitz	" baladi	" balitz
Gu " bagine	" baginte	" bagine
Zuek " barginezte	" bargintzte	" barginezte
Hek " baike	" balite	" baike

32. IZAN. Régime Indirect-Indic. Imparfait- (Zu) - zinen = vous étiez -

Zu (vous) Zintzaizkitan	(à moi) = vous m'étiez
Zintzaizkion	(à lui) = vous lui étiez
Zintzaizkigun	(à nous) = vous nous étiez
Zintzaizkien	(à eux) = vous leur étiez

- (Hura) - zen = il était

Hura (lui) Zitzaitan	(à moi) = il m'était
Zitzairun	(à vous) = il vous était
Zitzaison	(à lui) = il lui était
Zitzairigun	(à nous) = il nous était
Zitzairizun	(à vous) = il vous était
Zitzaiotzen	→ (à eux) = il leur était
Zitzaien	→ = il leur était